

Inoiz baino baldintza hobek egunkaria argitaratzeko

[Egile ezezaguna]

Egin, 1983-12-12.

Ugalde: "Euskarak ez du saltzen"

Garrantzi handiko gaia zela anuntziatuz hasi zen Martin Ugalde, Eusko Jaurlaritzako ordezkaria, eta berehala euskal prentsaren definizioari ekin ziolarik *"denok dakigu euskal prentsa –esan zuen– euskaraz idatzia dagoena dela, baina nik esango nuke idatzia baino osoki euskaraz pentsatua izan dena"*. Mugatze horren atzetik kontzeptu horren barnean sartzen ziren aldizkari guztiak aipatu zituen, "Argia" eta "Jakin"etik hasi eta "Ipurbeltz"eraino.

Prentsa elebidunean izandako esperientzien balantzea egiterakoan, gauza handirik ez dela aurreratu aitortuz hasi zen, eta horren arrazoinak argitu zituen ondotik. *"Gertatzen da prentsan ekonomiak agintzen duela, bestetik teletipoak erdaraz datoz eta itzulpenak lana ematen du. Nire asmoa zen 'Deia'n bi erredakzio egitea, bai euskaraz eta bestea erdaraz, baina berehala hasi ginen konturatzen euskarazko gauzetarako ez zegoela lekurik eta arrazoin batengatik: arrazoin ekonomikoagatik. Euskarak ez du saltzen eta erdarak bai"*.

Gaur egungo euskal prentsari buruzko balantzea egiten hasi zenean, medioz medioz eritziak emanez joan zen bataren nahiz bestearen meritoak gorai patuz eta berak nola ikusten dituen adieraziz. Aldizkari guzti hauek babesteko ea lege bat beharrezkoa den ala ez auziari eutsi zionean guztiz eritzi tinkoa azaldu zuen ezezkoaren alde, *"ezta katurik txarrenean ere ez nuke horrelakorik nahi"* bere hitzetan. Baieztapen horren arrazoi bezala esan zuen esperientziaz horretarako sortu diren lege guztiak prentsa zapaltzeko eta itotzeko eginak ez badira ere hala gertatzen direla gero praktikan. "Nik nahiago dut askatasun osoa eman eta bakoitzak lortuko du gero bere irakurlegoa et bere jendea. Bakoitzak egin dezala nahi duen bezala eta herriak erabakiko du zein erosi eta zein ez".

Martin Ugaldek, bere azalpenari bukaera emateko, euskal egunkariari buruzko ideia labur batzu azaldu zituen esanez guztion ametsa dela, egien zaila izango dela, garestia eta projektua bakarra balitz askoz errazagoa izango litzatekeela. Dena dela, gai horri buruz hitzegiteko geroago ere izango zela astirik.

[...]